

NORTZUK GARA:


16 eta 17 urte bitarteko ekintzaileak gara. Gure bizitza nekazarien munduan eman dugu eta azken urteetan ez dira eskari asko heltzen gure gurasoen enpresara. Egoera hau dela eta, lehen sektorea laguntzeko hurrengo zerbitzua eskainiko dugu:

IDEIA:

Baserriko elikagaien salmentarako app-a/web orrialdea sortuko dugu. Gaur egun, Euskal Herriko biztanle gehienak urbanizatu dira eta beraien erosketak supermerkatuetan eta merkatal-gune handietan egiten dituzte. Hori dela eta, baserritarrek elikagaiak saltzeko zailtasun handiak dituzte, izan ere supermerkatuetan atzeritar produktuak saltzen direlako, merkeagoak gainera.



Baserritarrek ezin diote honi aurre egin bi arrazoiengatik: alde batetik prezioak merkeagoak dira eta bestetik, supermerkatuak denboraldiz kanpo dauden elikagaiak eskaintzen dituztelako.



Teknologia dela eta lehen sektorean lan egiten duten pertsonen kopurua asko gutxitu da azken 50-100 urteetan. Hori dela eta lehenengo sektoreari bultzada bat emango diogu nekazariak eskaera gehiago edukitzeko eta beraien ekonomia hobetzeko.



Hortaz gain herriko biztanleriari bertako elikagaiak erosteko aukera eskainiko diegu. Eta, ez hori bakarrik, elikagai ekologikoak (produktu kimikorik gabe) eta denboraldikoak eskainiko ditugu. Elikagai osasungarriagoak eskuratu ahal izango dituzte kontsumitzaileek.

